

Mari Jose Ugarteri, bere erretiro egunean
(2020/10/06)

Doinua: Itsasoari begira

Garai batera begiratzean
erretiro egunean,
faxe, pezetak, karta-zeiluak,
titulu, instantzi artean
zer aldaketa, elektronika,
Inika, Drive azkenean
aldatu ez dena jubilazio
opariak erostean
zuk jarritako maitasun hori
gelditzen da bihotzean.

Amasatikan Tolosaraino
txintxo-txintxo egunero
belaunaldiak, zenbat aurpegi
garbitzaile ta portero,
**zuzendaritza, irakasle ta
ikasle guztik bezero;**
Karmelerekin tandem bikaina,
Marijo zarenez gero,
beti_eraginkor, beti_aurpegi on
harreran goxo ta bero! (BIS)